

9. Kostuak

Enpresa baten kostuak faktore garrantzitsuak dira haren finantza-arrakastarako. Kostu horien barruan sartzen dira ekoizpen-kostuak, lehengaien kostuak, langile-kostuak, garraio-kostuak, marketin-kostuak, biltegiratze-kostuak eta kostu orokorrak. Kostu horien kontrola eta murrizketa funtsezkoak dira enpresak arrakasta izan dezan. Enpresa-kideok kostuen jarraipena egin behar dugu, egungo kostuak ebaluatu behar ditugu eta epe luzera kostuak murrizteko helburuak ezarri behar ditugu.

Kostu finkoak

Lokalen erosketak eta ezarpena

Alokairuak ez du kosturik ekarriko, baina supermerkatua ezartzeak bai, baita edukiontzien berritzeak ere.

Soldatak

Izango ditugun langileak teknikariak izango dira, eta horiek soldata bat izango dute. Bestalde, Dendak mantentzeko eta garbitzeko, garbiketa-enpresa bat kontratatuko dugu, eta harekin adosten dugun prezioa ordaindu beharko dugu.

 **Marketin-kostuak:** produktuaren sustapenean eta publizitatean egindako gastuak.

Kostu aldakorak

Makinak

Supermerkatu guztiek salmenta-makina sistema berdina izango dute, baina leku bakoitzean egiten den erabileraren arabera, kostua altuagoa edo baxuagoa izango da.

Argindarra

Argiztapena eta makinaren funtzionatzeko behar den argindarra ordaindu behar dugu. Kostu hori argindarraren prezioaren eta orduen arabera aldatuko da.

Lehengaiak

Herri bakoitzean ez da janari-kantitate bera kontsumituko. Horregatik, zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta kostu handiagoak izango ditugu.

Biltegiratze-kostuak

Horien barruan sartzen dira produktuak biltegiratzeko eta tenperatura egokian mantentzeko kostuak.

Garraio-kostuak

Horien barruan sartzen dira produktuak hornitzaileetatik enpresaren biltegiara garraiatzeko egindako gastuak.

